

Ezkeltzu mendiko  
II. Larre irekiera  
egingo dute  
gaur ▶ 3



Harpidedunei banatua ▶ Ostirala ▶ 2006-05-12 ▶ IV. urtea ▶ 883. zenbakia ▶ [www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

**FERMIN MUÑOA** ▶ BERTSOLARIA

## «Hitz gutxirekin asko esatea da bertsoa»

**BERROBI** ▶ Garai bateko eta  
egungo bertsolaritza eta bere  
ibilbidea izan ditu mintzagai ▶ 5



Fermin Muñoa bertsolari berrobitarra. J. SAIZAR



E. EZEIZA

## Oria ibaiari jarraika egindako bidaia

**TOLOSA** ▶ Iñaki Olazabal andoaindarrak Oria ibaiak zeharkatzen dituen  
zazpi herrien inguruko proiektua jarri du Aranburu Jauregian ▶ 2

**TOLOSALDEA** ▶

## Erniopeko V. Mendi Ibilaldia, prest

Errezildik abiatuko  
dira, etzi ▶ 6

**LEITZA** ▶

## Venezuelan lehiatu berri da Iera Agirre pilotari gaztea

Euskal Komunitateen I. Nazioarteko  
Pilota Txapelketan parte hartu du ▶ 7



Iera Agirre pilotaria. J. ASTIBIA

**IBARRA** ▶

## Jende gutxiago izan arren, gustura

Garagardo Azokaren  
balantzea egin dute ▶ 4

## ERAKUSKETA ▶



**1. Zegama.** Oria ibaiak herri honetan du abiapuntua, horrela, goiko zulotik urak jasotzen ditu, eta iturri bat bezala, behekotik irteten dira. E. E.



**2. Ordizia.** Oria ibaiari bidean geratzen zaion hirietako bat da. Eskulturak erdian duen zuloa horretarako da, ibaia igaro ahal izateko. E. E.



**3. Ikaztegieta.** Ordiziarekin batera, ibai honen ibilbideko zati da, bidean geratzen den herrietako bat, zubi lana egiten du. Honek ere zulo bat du, urak igaro daitezten eta ibilbidea jarraitu. E. E.



**4. Tolosa.** Iñaki Olazabalek, orain egiten ari den eskultura honekin, berak bere gazte denboran hiri honekin zuen lotura eta bizipena irudikatzen du. Txikitatik gertu izan baitu Tolosa. E. E.



**5. Andoain.** Artistaren jaioterria da hau, eta eskultura honekin irudikatzen dena da nola Andoainek besoak zabalduta hartzen duen Oria ibaia. HITZA



**6. Zubieta.** Zalantzen gune da hau, ikus daitekeen bezala, bi aukera daude: edo Oria ibaiaren ibilbidea jarraitu Orioruntz, edo norabidea aldatu, Donostiara. HITZA



**7. Orio.** Hau da ibilbide luze honen helmuga, bertan amaitzen da Oria ibaian barna egindako bidaia. Eskultura honek ibaiaren zaindaria irudikatzen du, lanaren goiko zatian begi bat dirudien lehiu bat baitago. Ez da faro bat, zaindaria bat baizik, Oriaren zaindaria. Bestetik, ikus daiteken bezala, Zegamako irudiaren bera da. HITZA

## IÑAKI OLAZABAL ▶ ESKULTOREA

## «Herri bakoitzeko lanak bere zentzua du»

Oria ibaiak zeharkatzen dituen 7 herrien inguruko proiektua egin du Andoaingoak

## ESTI EZEIZA

Egun hauetan, eta hilaren 27ra arte, Iñaki Olazabal artistaren lanak ikusgai daude Aranburu Jauregian. Andoaindar eskultoreak zinka erabili du Oria ibaiari buruzko proiektu bat egiteko. Horrela, furgoneta, edo berak dioen bezala, «tailer mobila» hartu, eta Tolosan dihardu, erakusketaren aurrean, bere artelanak egiten. Iaz serie honetako hiru artelan egin zituen, eta orain seigarrenarekin ari da Aranburu Jauregiko atarian.

25 urte daramatza Olazabalek eskulturako erakusketak egiten; hasieran, autodidakta moduan hasi zen, eta Europako eskola garrantzitsuenetako batean ikasi zuen. Orain, eskualdean dugu, urte honetan egingadako lanekin, eta *Rio Oria ibaia* seriearekin.

**Zertan datza Rio Oria ibaia proiektua?**

Proiektua zazpi eskulturek osatzen dute, eta hauek Oria ibaiak zeharkatzen dituen zazpi herrietan oinarrituta daude. Nolabaiteko bidaia bat aurkezten dut lan honekin. Hala, herri bakoitzak forma ezberdina hartzen du, nire ikuspegiaren arabera. Herri bakoitzeko lanak bere zentzua du, baina betiere, nire bizipenengatik emana. Nik nahi dudana da, norberak nahi duen modura ikustea. **Tolosan, eskultura bat egiten aurkitu zaitugu erakusketaren kanpoaldean...**

Zazpi herri hauetan barna erakusketak egiten ari naiz, eta hauek ikusgai dauden bitartean, aldi berean, ni herri horretako eskultura egiten jarduten dut. Horrela, jendea hurbildu daiteke lana nola egiten duan ikusteko eta galderak egiteko. Erakusketan, lan hauen makekak eta urte honetan zehar egindako lanak ikusi ahal dira. Orain, adibidez, Tolosari dago-kion maketa handiagoan egiten ari naiz; eta, ondoren hau hirian bertan, Oria ibaitik gertu, utziko dut. Jada bost egin ditut: Tolosakoa amaitzea eta Zubietakoa bakarrik falta zaizkit.



E. EZEIZA

**Zergatik Oria ibaia?**

Hemengoa, bertakoa naizelako. Gainera, eskualde honek Gizuzkoarentzat asko suposatu zuen nire garaian. Baina, besterik gabe.

**Zenbat denbora behar duzu honelako eskultura bat egiteko?**

Erakusketan dagoen bitartean, hilabete-edo hartzen dut lan bakoitza egiteko. Izan ere, beti ezin izaten dut lanean egon, hau da, batzuetan beste proiektu batzuk ere tartekatzen zaizkit, eta agian beste nonbaitera joan behar izaten dut. Horregatik, saiatzen naiz bi edo hiru astetan bukatzen. Tolosatik joaten naizenerako, hemengoa amaituta eta nonbaiten jarrira egongo da.

**Zerk kentzen dizu denbora gehiago, lana nola egin pentsatzeak edo eskultura gauzatzeak?**

Ni dinamika baten barruan sartua nago, eta bat bukatu ordurako beste batekin hasten naiz. Ez daukat denborarik, burutik pasatzen zaizkidan gauza guztiak egingo banitu... Ezin dut, ez daukat astirik; horregatik, aukeraketa bat egin beharra daukat. «Blokeatuta» ez naiz sekula geratzen; bai, ordea, nekatuta. Eta orduan, astebebe edo, iparraldera joaten naiz txoriak ikusteko edo marrazkiak egiteko.

TOLOSA ▶ GIZARTEA



**Pirritx eta Porrotxen bisita berezia**

Etxeko txikienek ederki asko gozatu zuten atzokoan, Bonberean Pirritx eta Porrotx pailazok eskaini zizkieten jolas eta ekintza dibertigarriak esker. Ehun umetxo inguru gerturatu ziren pailazo ezagunek eragindako algara eta trufa artean, arratsalde bikaina igarotzeko. Musika doinu dantzagariak eskaini zituzten Pirritx eta Porrotxek, gazteen gozagarri-rako. Gisa honetara, Bonberean aurrera darrai adin guztiarentzat zuzendutako era guztietariko ekitaldiak antolatzen. NOELIA LATABURU

OSASUNA ▶

**Ekitaldi ugari, Nazioarteko Fibromialgia Eguna dela eta**

Gaur egingo dituzte Donostian; etzi, Ate Irekien Jardunaldia antolatu dute

ERREDAKZIOA

Gaur Fibromialgiaren Nazioarteko Eguna dela eta, Bizi Bide elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu Donostian. 18:00etan, konzentrazioa egingo dute Boulevard-ean; 18:30ean, berriz, Fibromialgiarekin zerikusirik izango duten antzezlanak aurkeztuko dute; 19:00etan, Fibromialgia eta Astenia kronikoaren gaineko III. Manifestua irakurriko dute, ondoren administrazio arduradunei banatuko zaizkizuten; 19:15ean, abesbatza batek emanaldia luzatuko du; eta 19:45ean, gaixotasunaren adierazle diren lanjara eta urdin koloreko puzgariak askatuko dituzte.

Bestalde, Bizi Bide elkarteak, egun honek eduki dibilgatzaila izateko helburuz, Ate Irekien Jardunaldia antolatu ditu, interesa duten pertsona guztiei zuzenduta. Etzi gauzatuko dituzte, Donostiako Londres hotelean. Goizean garatuko dute egitaraua. 10:30ean aurkezpenarekin ekingo diote jardunaldiari; 10:50ean Imanol Amayra Carok, Deustoko unibertsitateko psikologia irakasleak, *Fibromialgia oroi mena nola hobetu* hitzaldia eskainiko du. 11:15ean egitear» geratzen dela adierazi dute antolatzaileek; hala, etorkizunerako proiektu berriak dituzte, besteak beste, «Ezkeltzu mendia berreskuratzeko eta hurrengo urteetan egokitzeko geratzen diren lursailak jarraitzeko» xedea dute elkarteek.

ZIZURKIL ▶ NEKAZARITZA

**Ezkeltzu mendiko II. Larre Irekiera burutuko dute, gaur**

17:00etan abiatuko dira Zugastin ukui lu ondok, 45 abelburu izango direlarik

NOELIA LATABURU

Ganaduzaleek hitzordua dute, gaur, Zizurkilgo Zugastin ukui lu ondoan; izan ere, bertatik abiatu eta Ezkeltzu mendira eramango dituzte behiak, non II. Larre Irekiera burutuko duten, 17:00etatik aurrera. Aurten 45 abelburu izango dira larrean, Zugastizabal, Zaldugoea eta Egialdeko baserrietako larre behiak eta Izibar, Ugarte eta Berastegiko esne behiak.

Urtean zehar Ezkaltzugain Abeltzain Elkarteak kideak larreak prestatzen aritu dira auzolanean. Lurraren azterketak egin ondoren, behar zuen karea eta ongaria zabaldu dute elkarteek, eta larrean zehar sakabanatuta zeuden harri handiak biltzen eta pilatzen ibi-



Eskaltzugain Abeltzain Elkarteak beren abereak Ezkeltzuko larreetara eramane zituzten iaz, I. Larre Irekieran. HITZA

li dira traktoreen laguntzaz. Hala, ganadua biltzeko manga eta ur puntuak egokitu dituzte, Zizurkilgo Udalak bideratuta

eta Foru Aldundiak lagunduta. Ganadua biltzeko manga Ziortzako langa inguruan kokatu dute, horrek «mendian zehar

sakabanatuta dagoen ganadua toki batean biltzen eta behar duten osasun tratamenduak nahiz kamioetan jasotzen laguntzen baitu», abeltzainek adierazi dutenez. Mendiaren ur baliabideak aztertu ondoren lau ur puntu egokitu dituzte, ur deposituak eta ura edateko askak.

**Mendia txukuntzea xede**

Hala ere, «oraindik ere lan asko egitear» geratzen dela adierazi dute antolatzaileek; hala, etorkizunerako proiektu berriak dituzte, besteak beste, «Ezkeltzu mendia berreskuratzeko eta hurrengo urteetan egokitzeko geratzen diren lursailak jarraitzeko» xedea dute elkarteek.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan 50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK** Telf.: 943 65 56 95  
19:00ak arte hartzen dira [tolosaldean@tolosaldekohitza.nfo](mailto:tolosaldean@tolosaldekohitza.nfo)

hilberria ▶

**Lurdes Elso Agirre**  
—Goian bego—



Guretzat eredu izan zara.

Keixetatar lehengusu guztiak

ARROA BEHEAN, 2006ko maiatzaren 12an

IBARRA ▶ GIZARTEA

# Jende gutxiago izan arren, gustura

## III. Garagardo Azokako antolatzaileek balantze ona egin dute pasa den urteko emaitzetara iritsi ez diren arren

IÑIGO TERRADILLOS

Aurreko bi edizioetan baino jende gutxiago izan arren, Ibarako III. Garagardo Azokako antolatzaileek gustura daude lortutako emaitzekin; «eguraldi txarra egin zuen, eta jende gutxiago azalduko zela espero genuen; baina azkenean ez zuen halako eraginik izan eta larunbatean, esaterako, jende ugari joan zen Ibarako plazara. Larunbatean aurreko garagardo azoketan baino jende

gehiago izan zen, baina ostegunean, ostiralean eta igandean nabaritu genuen hutsunea». Orokorrean, harrera gutxiago izateak eragina izan du, ez baitira aurreko bi edizioetako emaitzetara iritsi; baina, dena den, pozik azaldu dira antolatzaileak, eta balorazio ona egin dute. Hala, aurtengo antolatzaileak aurreko urteetan izan ez direnak izan direla, eta horrek ere eragina izan zezakeela adierazi dute, eta edizio honetako eskarmentuak hu-

rrango urtekoa hobeto prestatzeko balioko diela.

Garagardo Azokaren baitan antolaturiko kultur ekitaldiei dagokienez, herritarrek parte hartu dutela gehitu dute. Horien artean larunbatean Gazte-txean izan zen kontzertua azpimarratu dute, «jende asko erakarri baitzuen».

### Lasturrera irteera

«Urtero bezala, lagundu duten herriko elkarteek gain, norba-



Tolosaldeko Arraun Klubeko neskek eman zioten hasiera azokari. i. r.

nako ugari izan da, trukean ezer jasotzeko asmorik gabe laguntza eskaini duena», eta eskerrak eman nahi izan dizkiete antolatzaileek. Herritar hauek eta gainerakoak ere gonbidatuak izango dira iraila-

ren amaieran edota urriaren hasieran antolatuko duten irteerara. Izan ere, beste urteetan bezala, Lasturrera txangoa ari dira prestatzen, eta laster jarriko dute hara joateko izena emateko aukera.

IBARRA ▶ GIMNASTIKA ERRITMIKOA

## «Maila bikaina» ari dira erakusten Belabietakoak Gipuzkoako finaletan

### Garazi Egigurenek Euskadiko Txapelketan lehiatzeko txartela lortu du

ERREDAKZIOA

Pasa den larunbatean Arrasateko Urkapen jokatu zen Gipuzkoako Gimnastika Erritmikoko Txapelketako finala A mailan, eta Ibarako Belabietako Gimnastika Erritmikoko taldeko kideek bertan aritzeko zortea izan zuten.

Hain zuzen ere, Garazi Egiguren eta Izaro Esnaola aritu ziren infantil mailan lehiatzen; Egiguren 3. sailkatu zen, beraz, Euskadiko Txapelketan parte hartzeko txartela eskuratua du. Esnaolak, berriz, gutxiagatik ezin izan zuen txartela lortu, seigarren amaitu baitzuen. Baina, dena den, «biak ala biak



Gipuzkoako finaletan ari dira lehiatzen ibartarrak. HITZA

maila bikaina erakutsi zuten proba guztietan».

Jubenil mailan ere izan zuten ordezkariak Belabietak; taldekako ariketetan Donostiakoekin aritu zen Belabietan erakusle lanetan dabilen Laura Angulo, eta han ziren Hernaniko taldean iaz arte Belabietan aritu ziren Aintzane Otaegi eta Natalia Carrasco.

Bestalde, igandean B mailako arteko txapelketa izango da, Astigarragan. Bertan parte hartzeko sailkatuta dago Belabietako Maider Urruzola, eta «berak dakien bezain ongi mugituko dela» eta postu on bat lortuko duena itxaropena du taldeak.

BERASTEGI ▶ MENDIA

## Gaztetxoentzako ibilaldia egingo dute igandean

### Guraso Elkarateak antolatuta, urtero bezala, Ibilaldi Neurtuarekin batera egingo dute

ERREDAKZIOA

Basurde elkaratek igandean antolaturiko 30 kilometroko Ibilaldi Neurtuari gaztetxoentzako Guraso elkaratek urtero antolatzen duena gehitu behar zaio. Nagusierna 07:00-etan aterako den bitartean, 09:30ak inguruan abiatuko da gaztetxoena; baina, hori bai, izena emateko 09:00etarako egon beharko da Berastegiko plazan. Parte-hartzaileei denborak hartzeko orriak banatuko dizkiete, eta orduan ekingo diote 3 orduko ibilbideari. Gorosmenditik eta San Lorentzotik igaroko dira, eta handik Be-



lazio ibilaldiko une bat. HITZA

rastegira bueltatuko dira. Saria jasoko dute parte-hartzaile guztiek, diploma bat, hain zuzen ere.

**hitza argazki lehiaketa**

**eman botoa**

**BOTOA EMATEKO**

▶ P. elektronikoz: tolosaldeko@tolosaldeko-hitza.info  
▶ Telefonoz: 943 65 56 95

Botoaz gain, datu pertsonalak behar ditugu

**Irabazleak, maiatzak 14 igandeko egunkarian**

**Sari nagusia**

**BIDAIA paregabe bat zure neurria**

2 lagunentzat 5 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin  
Asturiasen edo Costa Bravan

**Bidaia Agentzia bidaide**

Erniobea, 6-behea • 20150 Villabona  
Tel.: 943 692 693  
bidaide@gruposercom.com

**ZOKETA APARTAK**

**PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE**

guztien artean HITZAren motxila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira

**HITZA**







